

agenda

Alegría-Dulantzi

*Librea naiz,
libre jaioa,
libre edozein
lekutan.*



AYUNTAMIENTO DULANTZIKO
DE ALEGRÍA UDALA

apirila - maiatza 2014
Alegría-Dulantzi bizi eta elkarrekin bizi

OZEN NET: SOINU SORKUNTZA PROGRAMA

Apirilak 12, Larunbata. Kultur Etxean

Seinale soinuduna, entzuketa, paisaia soinuduna, performancea, ondare immateriala, inprobisazioa, elektroakustika, musika elektronikoa...

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa-Estatuko Kultur Idazkaritzak babestua

SOINU-JOLASAK: REZIKLONK



Objektu birziklatuen instalazio musikala. Soinuekin jolasteko gunea Turukutuparen eskutik

12:00etatik 14:00etara
Herriko Plazan

SOINU-MUGIKORRA: INSTALAZIO INTERAKTIBOA

Hitza: Malab kolektiboa

Gure hitzekin eta besteekin soinu-guneak sortzea ahalbidetzen du, eta soinu-obra bat kolektiboki sortzea.

11:00etatik aurrera, Erakusketa Aretoan



KONTZERTUAK

Hélade Proiektua:
Ziurgabetasunaren
printzipioa.



Kontzertu interaktiboa,
prozesu musikaletan halabeharra
esperimentatzea ahalbidetuko duena.

18:00etan. Auditoriumean. Dohainik lekuak bete arte

Jose M^a Pastor Sánchez: paisaia soinuduna



Gure paisaia soinudunaren berri emango digu Alegria-Dulantzin egin zituen grabaketan bidez.

19:00etan, Auditoriumean.
Dohainik lekuak bete arte

HITZALDI IREKIA

Soinuduna, entzungarria eta bitartekaritza III. Artista gonbidatuekin

20:00etan, Hitzaldi-aretoa Dohainik lekuak bete arte

LIBURUAREN EGUNA OSPATZEKO EGITARAUA

TOPAKETA IDAZLEAREKIN: "La experiencia de escribir"

Endika Urbaranek, mendizalea eta kartografoa, **Desnivel Literatur Saria**

2011 Huida al Tibet lanari esker, idaztera eraman duten arrazoiak kontatuko ditu Dulantzín.

Apirilak 10, osteguna-19:00etan Liburutegian.
Sarrera libre



IPUIN-KONTALARIA magia eta txotxongiloekin Patata Tropikalaren "Pirata-Garrapata"

"Pirata garrapata" k leku exotikoetara bidaiatu du eta abentura izugarriak bizi izan ditu, baina zoragarriena itsas hondoan bizi izan zuen, eta gaur Dulantzín kontatuko du...

Apirilak 22, asteartea-12:00etan.
Ludotekan. Gomendaturiko adina: 1 eta 8 urte bitartean.



ZINEMA LITERARIOA

"**Tormeseko Itsumutila**". Marrazki bizidunak-Haurrentzat euskaraz. **Apirilak 25, ostirala 12:00etan. Auditoriumean**



LIBURUAREN EGUNA

Apirilak 23, asteazkena

11:30etan. Herriko Plazan

Liburuaren azokatxoak: "Irakurketak opari"

Tailer artistikoak: Liburuaren, irakurketaren eta literaturaren inguruko eskulan txikiekin.

Dohainik

19:00etan, Auditoriumean

ANTZERKIA-UMOREA:
S.O.S Madres La Patro Teatro-rekin

Ama bik beren seme-alabekin duten harremana kontatuko dute, euren bizitzan eta beste ama batzuen adibideak jarrita.

Paradoxa da inoiz ez ditugula izaten amesturiko seme-alabak, eta haiek, gehiago, gure izuen isla izaten direla...

Eta gero... literatur lehiaketako sari-banaketa.

Dohainik lekuak bete arte



DULANTZI AKTIBOA: EKIN ELKARREKIN

Ekarriko dugun programa berrian, Alegria-Dulantzi izango da protagonista bakarra, bertoko auzotarrek eskainitako jarduera-eskaintza dakarren heinean, haien ezagutzak dulantzitar guztien eskura jarrita.

Honako hau lehenbizikoa izango da, baina jarduerak eskaintzen jarraitzeko asmoa du. Egitarauan parte hartzera eta berau gozatzera gonbidatzen zaitugu.

1 ERABILI ZURE IRUDIA SARE SOZIALETAN

Gaur parranda-lagun duzuna, baliteke bihar lanpostu bat eskuratzeko baloratu behar zaituena izatea. Zaindu zure irudia sare sozialetan hainbeste nahi duzun hori lortzeko.

Apirilak 15, asteartea-17:30etan Kultur Etxean.

16 urtetik aurrera

Iraupena: 2 ordu eta 30'.

Leku-kopurua: 12.



Irakasleak: Alexander Beltrán de Lubiano

Orientabideak-en lan egiten du, karrera profesionalaren garapenerako lan-prestakuntza eta coaching proiektua.



2 EGIN ZEURE BLOGA

Oinarrizko blog bat sortzeko tailerra, wordpress.com programaren bidez.

Maiatzak 6, asteartea, eta 8, osteguna-17:30etan Kultur Etxean.

16 urtetik aurrera-Iraupena: 2 ordu eta 30' /saioko.

Leku-kopurua: 10.

Partaideek bete beharreko baldintzak:

Nork bere ordenagailua eramatea.

Eraztasuna Interneten nabigatzeko.

(Hobe) blogerako ideia bat edukitzea.

Irakaslea: Angel Lz. de Luzuriaga (ardiluzu), Internet aholkularia. www.ardiluzu.com



3 NOLA EGIN CUPCAKE-AK

Ikasi zeure Cupcake-ak egiten, egunerokoa gozatuko duten tarta txiki horiek.

Maiatzak 7 eta 14, asteazkena 17:30etan Kultur Etxean.

16 urtetik aurrera-Iraupena: 2 ordu eta 30' / saioko.

Leku-kopurua: 12.

Irakaslea: Isabel Valdivielso Gutierrez.

Opilgintza aditua.



4 YOGA HAURRENTZAT

Hurtzaroa oso etapa garrantzitsua da gure bizitzan, eta aro horretan yoga bezalako zerbait esperimentatzea zoragarria da. Yoga jolasaren bidez praktikatzek indarra, koordinazioa eta gorputzaren kontzientzia ahalbidetzen ditu, eta malgutasuna hobetzen du, hala nola kontzentrazioa eta baretasun sententzia, erlaxatuta sentiarazita.

Maiatzak 10, larunbata-10:30etan Yoga Eskolan.

6 eta 10 urte bitarteko haurrak. Iraupena: 45'. Leku-kopurua: 10.

Irakaslea: Nerea Nacenta. *Yoga irakaslea eta biologoa.*



5 YOGA KIROLEAN LESIOAK PREBENITZEKO

Luzaketaren bidez, muskulua bere jatorrizko luzera berreskuratuz joaten da, eta artikulazioek beren mugikortasun osoa berreskuratzen dute. Horrek guztiak, arnasketa egokiarekin batera, muskulu eta artikulazioetan lesio gutxiago edukitzea eragiten du.

Maiatzak 11, igandea-9:00etan. Yoga Eskolan. Gazte eta helduak. Iraupena: ordu 1 eta 30'.

Gazte eta helduak. Iraupena: ordu 1 eta 30'.

Leku-kopurua: 12.

Irakaslea: Onintze Barbero. *Yoga irakaslea eta andereñoa.*



6 ARNASKETA TAILERRA

Arnasketa egokiak beharrezko oxigenazioa ematen digu birika eta zelula mailan. Lasaitasuna ematen digu maila emozionalean eta burua kontzentratuago izaten laguntzen digu.

Maiatzak 16, ostirala 18:00etan. Yoga Eskolan

Gazte eta helduak.

Iraupena: ordu 1 eta 15'. Leku-kopurua: 14.

Irakaslea: Onintze Barbero. *Yoga irakaslea eta andereñoa.*

DULANTZI AKTIBOA EKIN ELKARREKIN



7 YOGA ADINEKOENTZAT

"INOIZ EZ DA BERANDU IKASTEKO, ETA POZIK BIZITZEKO". Yogak, hainbat teknikaren bidez, laguntza ordainezina ematen die adinekoei: nolabaiteko ariketa fisikoa mantentzen du, sedentarismoa saihestuta, loaren kalitatea hobetzen du, zelulen zahartzea moteltzen du, nabarmen murrizten du oroimen galera eta odolaren zirkulazioa suspertzen du.

Maiatzak 16, ostirala-18:00etan. Yoga Eskolan

60 urtetik aurrera. Iraupena: ordu 1 eta 30'. Leku-kopurua: 12. **Irakaslea: Nerea Nacenta.** Yoga irakaslea eta biologoa.

8 BADAUKAT LAN-MERKATUAK BILATZEN DUENA

Ikasketez gain, lan-merkatuak beste trebezia batzuk eskatzen ditu lanpostura egokitzeko. Ezagutu lan-eskaintza guztietan eskatzen ari diren funtsezko 15 gaitasunak.



Maiatzak 13, asteartea-17:30etan. Kultur Etxean

16 urtetik gora. Iraupena: 2 ordu eta 30'. Leku-kopurua: 12.

Irakaslea: Alexander Beltrán de Lubiano.

Orientabideak-en lan egiten du, karrera profesionalaren garapenerako lan-prestakuntza eta coaching proiektua.



9 TXAKURREN OINARRIZKO HEZIKETA TAILERRA

Ikasi oinarrizko nozio batzuk zure txakurra esanekoago izateko eta berarekin lotura handiagoa lortzeko.

Maiatzak 17, larunbata. 17:00etan. Urbegi Parkean. (Hurtzaindegi atzean)

16 urtetik aurrera.
Iraupena: 2 ordu.

Leku-kopurua: 20. Joan txakurrarekin.

Irakaslea. Asier López de Aberásturi Garcia.

Txakur-hezitzailea.





10 ESKULAN TAILERRA: SCRAPBOOKIN

Sortu eta pertsonalizatu zure argazkien eta oroitzapen bilduma.

Maiatzak 20, asteartea, 22, osteguna eta 27, asteartea-17:00etan. Kultur Etxean.

16 urtetik aurrera. Iraupena: 2 ordu eta 30'. Leku-kopurua: 10. **Irakaslea:**

Olga Alvarado. Eskulan begiralea, sormen eta irudimen dosi handikoa.



11 LEHEN SOROSPEN PEDIATRIKOEI BURUZKO NOZIOAK



Aholku praktikoak etxean gertaturiko istripu txikien ondoren haurrak artatzeko.

Maiatzak 29, osteguna-17:30etan. Kultur Etxean.

Leku-kopurua: 20. 18 urtetik aurrera. Iraupena: 2 ordu.

Irakaslea: Estíbaliz Gutierrez Martínez. Erizaina eta terapeuta okupazionala.

Dulantzi Aktibo Egitarauan Parte hartzeko baldintzak Kuotak

Egun bateko tailerra:

1,5€ prezio hobariduna erroldaturiko lagunentzat. Besteentzat 7,50€€

Bi eguneko tailerra:

3€ prezio hobariduna erroldaturiko lagunentzat. Besteentzat 15€

Iru eguneko tailerra:

4,5€ prezio hobariduna erroldaturiko lagunentzat. Besteentzat 22,5€

Izena Kultur Etxean eman behar da, jarduera bakoitza baino bi egun lehenago.

Partaidetza izen-ematearen ordenaren arabera erabakiko da. Eskaria leku-kopurua baino handiagoa balitz, erroldaturikoek izango dute lehentasuna.

Kuota, izena ematean ordaindu beharko da. Jarduera etengo balitz, itzuli egingo da.

Pertsona bakoitzak gehienez lau jardueratan eman ahal izango du izena. Jarduera gehiagotan parte hartu nahi izanez gero, erreserba-zerrendan geratuko da.

Baduzu bestelako proposamenik?

Dela zure lanbideagatik, dela zure zaletasunagatik gairen baten inguruko ezagutza baduzu eta programa honetan "jardueraren bat eskainiz" parte hartzea gustatuko balitzaizu, jarri harremanetan gurekin Udaletxean: Kultura eta Kirol Zerbitzua. Telefonoa 945 420 027
aalegria.maite@ayto.alava.net - aalegria.juanjo@ayto.alava.net

EKINTZAK

DANBORRADA

Apirilark 26, Larunbata

12:00etan Damborrada

14:45ean Bazkaria

18:00etan Danborrada

(kaleetatik)

Antolatzaileak: Toki ametxa-Okeluko eta Bi Mila Elkarteak



IGE-ren JARDUERAK. Dulantziko Herri Ikastetxeko Gurasoen Elkarte

Jardunaldia: "Desberdinak gara, berdinak gara "

MUNDUKO JOLASAK Maiatzak 10, larunbata

Eskola-Antzerkia Maiatzak 11, igandea

Txango familiarra Burdinbidearen Euskal Museora eta Erleen Museora. Maiatzak 31, larunbata

Elkarteak jarduen gaineko informazio guztia emango du

MOTOZALEEN VII. TOPAKETA ALEGRIA-DULANTZI BLAKBIRD 2014

Maiatzak 3, larunbata.



Asteburu bizia motozaleentzat.

Denontzako kontzertuak kirol-gunean:

19:30 - Rancherak Lobo & Carmine-rekin

22:30 - "Whisky Dyc" eta "Los Brazos" taldeen kontzertuak

Informazio gehiago: Blackbird

Tel.: 609158163

Antolatzailea: Blackbird Dulantziko Motorrak Elkarte

ZINE KLUBA

Kultur Etxean

Apirilak 6, Igandea

17:00etan- BETIZU IZAR ARTEAN


19:00etan- LO IMPOSIBLE

Apirilak 13, Igandea

17:00etan- EL ORIGEN DE LA SIRENITA

19:00etan- LA GRAN FAMILIA ESPAÑOLA

Benboraldiaren amaiera, zine gehiago Urrian



ERAKUSKETA: Norena da espazio publikoa?

HEZIGABEAK: JOKATU ARDURATSU

Maiatzaren 26etik aurrera Hirigune Historikoan

Dulantzarren gizabidezko izaera ohiko jokabidezko araua bada ere, batzuetan izaten dira, norbanako batzuen aldetik, hiri-ingurunearekiko jarrera arduragabeak, zeintzuek, gutxiengoak direla jakinda ere, elkarbizitza asaldatu, herriaren bizi-kalitatea kaltetu eta kostu handiak eragiten dizkietenak udalaren diru-kutxei edo kalteturiko ondasunaren jabeek.

Erakusketa honen helburua hausnarketa bultzatzea da, hala nola arduratsu jokatzeko deia egitea, zeren... etxe hau guztiona baita, Dulantzi gurea da.

PATINAJE EGUNA DULANTZIN

Apirilak 12, larunbata-11:30etan

Alegria-Dulantzikoko Udal Polikiroldegian.

Antolatzailea: Arabako Patinaje Federazioa eta AFA.

Laguntzailea: Alegria-Dulantzikoko Udala.

BISITATU ETA EZAGUTU HENAYOKO GAZTELUA

Hartu ezazu parte denboraldiari hasiera emateko bisita gidatu honetan.

Apirilak 11, Ostirala-18:00etan aparkalekutik.

Leku-kopuru mugatua.

Bisiten egitarauaren inguruko informazio gahiago kultur etxean.

TXANGO FAMILIARRA SENDA VIVA-RA

Maiatzak 24, larunbata.



Irteera autobus-geltokitik 9:00etan. Senda Vivatik buelta 20:15ean. Leku-kopurua: 50. Adin txikikoak helduek lagunduta joan beharko dira. Bidaia-aren barne: Autobusa eta parkerako sarrera. Gutxienez 30 pertsona

	PREZIOA	Hobariduna erroldatuentzat
HELDUAK	31,00 €	27,00 €
12 eta 17 urte bitartean	31,00 €	18,00 €
6 eta 11 urte bitartean	26,00 €	15,00 €
5 urte arte	10,00 €	6,00 €
65 urte baino gehiago	26,00 €	15,00 €

Izen ematea: Maiatzaren 19 arte, kiroldegian

TXEMA BLASCO AUDITORIUMA. KULTUR ETXEA

HAURRENTZAKO DANTZA

Euskadiko Dantza Garaikidearen X. Zirkuituaren barruan (Sarea-Eusko Jaurlaritza)

ENAMBAR DANTZAren eskutik... BABAOL

Babaol mitxoleta eta barraskilo banaren istorioa da.

Lanak haurtzaroren zati bat itzultzen die helduei, eta umeak dantzarekin, musikarekin, bideoarekin, pinturarekin eta antzerkiarekin gozarazten ditu.

Esperientzia aparta zentzumenentzat, umorea, samurtasuna, misterioa eta adorea uztartuta.

Apirilak 24, osteguna-18:00

Sarrera: 2,5€



BALLETA- Arabaren aldeko Dantza



Arabaren aldeko Vital programaren baitan

José Uruñuela Udala Kontserbatorioko Koreografia tailerrak, 25 dantzarik osatua eta Carmen Tercerok zuzendua, ballet eta dantza egitarau zabala eskainiko du

obra Klasikoak, Ballet Historikokoak eta Sorkuntza Berriko errepertoriokoak dantzatzuz.

Alegria-Dulantzin eskainiko duen emanaldiak dantza eta baletaz gozatzeko aukera emango digu

Maiatzak 23, ostirala. 20:00

Doako sarrera lekua bete arte.



Mahai-ingurua: Alegria-Dulantziko eta eskualdeko errealitate sozio-erlijiosoa

Hizlariak:

Amaia Izaola Argüeso (Euskal Herriko Unibertsitateko soziologo eta ikerlaria, Leioa)

Félix Placer Ugarte (Teologian eta Pastoraletan Doktorea, Gateizko Teologia Fakultateko irakaslea)

Maiatzak 16, ostirala. 19:30etan

Kultur Etxea- Doako sarrera lekuak bete arte. *Antolatzailea: Eskualdeko parrokiak*



Drive

[2 ordu]

Google zerbitzarian zure dokumentuak edozein ordenagailutik eta nahi duzun pertsonekin lantzeko konpartitu itzazu.

2014/05/08 (Osteguna)

15:00etatik-17:00etara



TABLET bat erabiltzen ikasi (Android 4.0)

[4 ordu]

Android 4.0 sistema eragilearekin lan egiten duen TABLET bat erabiltzen ikasi eta trebatu. Gure zentroetan eskaintzen den ikastaro prezentziala antolatzeko, KZgunearenak diren hainbat tablet erabiltzen dira. Honela, nahiz eta tabletaren antzeko gailu propiorik ez eduki, nahi duen edozeinek ikastaroa egiteko aukera izango du.



2014/05/13 eta 2014/05/20 (asteartea)

10:00etatik-12:00etara.

IZEN EMATEA: Kultur Etxean

JAIK 2014

Kartel egin nahi zenuke?

Testua

**Fiestas de Alegría-Dulantziko
Jaik 2014**

Teknika:

Edozein teknika

Neurriak:

DN4 gutxienez
eta DN3 gehienez
euskarri informatikoa
ere aurkez daiteke

**Aukeratutako
Kartelaren
jabeak
jasoko ditu**

150€

Entrega Kultur Etxean

Maiatzaren 23 arte

Lanak sinatu gabe aurkeztu behar dira eta egilearen datuak kartazal itxi batean sartu

Hautaketa Jaien auzokoan parte hartzeko taldeak egingo du

INFORMAZIOA

ODOLA EMAN

Autobusa Arrabal enparantzan

MaiatzaK 2, Ostirala.9:30 etatik-13:15etara

Maiatzak 7. Asteazkena. 16:30etatik 20,15etara

KULTUR ETXeko

ORDUTEGI BEREZIA

ASTE SANTUA ETA PRUDENTZIO DEUNAREN

Apirilaren 17tik 21era Itxita. 22tikl 25era goizez

11:00etatik a 14:00etara. Arratsaldez egitarauraren arabera.

Apirilaren 29 eta 30an ohizko. ordutegia 15: 30etatik-

21:30etara. **Maiatzaren 1etik 4ra Itxita**

LUDETEKAKO JAIA

Maiatzak 10, larunbata 11: 30etan

Eguraldi onarekin batera kalean jolasteko garaia heldu zaigu, beraz, jai handi batekin agur esango diogu ludotekari

LAUTADAN GOZATU!!!

Lautadako Eskualdeko agenda berria kirol eta kultur ekintzekin.

Sartu www.cuadrillasalvatierra.org web orrian eta klik batean apuntatu.



BIDezko MERKATARITZA-PROGRAMA BEREZIA

Bidezko Merkataritzaren Eguna dela eta, programa berezia gauzatuko da udalerriko hainbat kolektiboren eskutik.

Hitzordua maiatzaren **12tik 15era izango da, 18:00etan**, eta egunero, astelehenetik ostegunera, animaziozko jarduera eta produktuen dastaketa bana izango dugu.

Programa, "Etiopia. Afrika, beste begirada bat"

Erakusketarekin osatuko da. Mari Martinezen argazkien bidez, hango lekuen, bizimoduen, ohituren eta pertsonen errealitatea ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu. Informazio guztia jarduera honetarako argitaratuko diren eskuko programa eta karteletan